

Noticias de Bizkaia

deia.com

Deia. Noticias de Bizkaia - Noticias de última hora de Bizkaia, Euskadi e internacionales.



Lankidetza hitzarmena sinatu dute Euskaltzaindiak eta DEIAk

Akademia eta hedabidearen arteko akordioak urte bateko iraupena izango du

Manu Zabala - Jueves, 11 de Febrero de 2010 - Actualizado a las 07:33h

Bilbo. Euskara eta euskal kultura zabaltzeko ekimenak errentagarri eta egoki izan daitezen lankidetza harremana sustatzeko hitzarmena hartu zuten atzo Euskaltzaindiak eta DEIA egunkariak. Akordioa ofizialki gauzatzeko sinaduraren zain, Euskaltzaindiaren Egoitzan bildu ziren atzo bi parteak. Euskal Akademiaren euskaltzaiburu Andres Urrutia eta hedabide eta Noticias taldeko arduradun Iñigo Caminoren arteko bostekoarekin itxi zen sinadura. Akordioaren lekuko bihurtu ziren Jose Luis Lizundia, Euskaltzaindiaren diruzaina eta Pello Telleria Akademiaren idazkariordea.

Atzo sinatutako hitzarmenak bi erakundeen arteko elkarlana sendotzea du helburu, bereziki euskararen normalizazioari buruzko proiektuak gauzatzeko eta Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako arauak euren barnean zabaldu eta komunikabideen bidez gizartera egoki plazaratzeko. Lankidetza harremanak zenbait eremu hartuko ditu.

Alde batetik, Noticias taldeko hedabideak eta Euskaltzaindiak elkarri bere ikerketa-ondareak erabiltzeko aukera emango diote, bereziki, euren artxibategi eta bibliotekak. Bestetik, Euskaltzaindiak erantzuna emango die Noticias taldeko hedabideek egindako kontsultei, beti ere, kontsultok euskal lexikoari, gramatikari, onomastikari ortografiari eta, oro har, euskararen aragintzaren beste zenbait gairi buruzkoak direnean. Gainera, argitalpenen arloan, elkarlana bultzatuko da, eta baterako argitalpenak sustatuko dira. Amaitzeko, DEIA egunkariko euskarazko testuak baliatuko ditu Euskaltzaindiak Lexikoaren Behatokiko testu-corpora gizenduko dutenak.

Hitzarmenak, momentuz, urte bateko iraupena izango du. Hala ere, urterik urte luzatzea espero dute bi aldeek. Atzo sinatutako akordioak eragin zuzena izango du hemendik aurrera Noticias taldea osatzen duten hedabideetan.

Lexikoaren Behatokiaren azterketak lagundu Euskaltzaindiak aitortu duenez, UZEL, Elhuyar eta Ixa taldearekin batera Lexiko Behatokia garatu nahi du. Egitasmoa Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko lantaldearen proposamena da eta ikerketarako testu-corpora etiketatu eta linguistikoki antolatu bat prestatzea du oinarritzko lana. "2-4 urtetan Corpus bat osatu nahi dugu" uste du Andres Urrutiak. Lexikoaren erabileraren azterketak egin nahi dira, bai eta lexikoari dagozkion arauak eta gomendioak dokumentatu ere.

Corpus hori hornitzeko "euskarazko hedabideekin akordioak ontzen ari gara", azaldu zuen euskaltzainburuak. Bide horretatik, DEIA egunkariak 2000. urtetik honako euskarazko testu-masa osoa Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko du. "DEIA egunkariko testuak lapurtuko ditugu orain", txantxetan esan zuen Urrutiak. Testu-masa hau Lexiko Behatokian egin behar diren azterlanak egiteko erabiliko du Euskaltzaindiak.

Cargando comentarios...



iHecho!



Recibirás un e-mail para confirmar tu registro.

Enseguida te devolvemos a la página en la que estabas donde verás tu comentario publicado

Publicidad

-
-
-
-

• © Deia - Noticias de Bizkaia

-
-
-